a) Proiektuaren azalpena. Azalpen horretan, besteak beste, lortu nahi diren helburuak eta 2013ko ekitaldian erdietsi nahi den aurrerapen maila zehaztu behar dira.

b) Proiektua garatzeko eskura diren baliabide ekonomikoak: Sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza; bertan adieraziko dira aurkeztutako proiektua gauzatzeko eskatzaileak jarriko dituen finantza-baliabideak. I – E 1 eranskinean jasotzen diren datuak bete beharko dira.

c) Enpresan, proiektuan parte hartuko duten langileen zerrenda; zerrenda hori lanbide kategorien arabera izango da.

5. Berariazko datu hauek zehaztu beharko dira II – E 3 eranskinean bertan:

a) Izakundea zenbat aldiz aurkeztu den diru-laguntzen deialdi honetara, 2013. urteko hau kontuan hartuta.

b) Proiektuan modu zuzenean parte hartzen duten langileen kopuruak enpresako langile guztien gainean dakarren portzentajea.

c) Langileen euskalduntzera eta hizkuntz gaikuntzara bideratutako diru-kopuruen zehaztapena.

6. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agiriak diren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

7. Beharrezkotzat jotzen denean, Euskara Zerbitzuak formalizatutako eskabideak ebazteko bidezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei. Errekerimendua egin zaion eskatzaileak agiri horiek ezarritako epearen barruan aurkezten ez baditu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta eskabide hori artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren.

8. Banku-datuak aldatu dituzten erakundeek, sortu berriak direnak eta 2012ko ekitaldian Bizkaiko Foru Aldundiaren euskararen sustapenerako deialdietako ezeini heldu ez diotenek hartzekodun-fitxa aurkeztu behar dute, behar bezala beteta, Euskara Zerbitzuak diru-laguntzaren ordainketa tramitatu baino lehen.

5. artikulua.—Ebaluazio-irizpideak

1. Diru-laguntzetarako eskabideak ebazteko proposamena egiteko eta diru-laguntzen zenbatekoa ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak kontuan izango ditu honako irizpideak, bai eta berorien haztapena ere. Haztapena 100 puntukoa izango da, gehienez, eta honetara egingo da:

- Plana zer lanbide kategoriatara zuzenduta dagoen eta proiektuan parte hartuko duten langileen kopuruak enpresako langile guztien gainean dakarren portzentajea. Halaber, planean aurreikusitako diru-kopurua parte hartuko duen langile bakoitzeko (eman beharreko kopuru osoaren 40 puntuaino baloratuko da).

3. Deberá adjuntarse la siguiente documentación de índole general conforme a lo especificado en el anexo II – E 3 del presente Decreto Foral, siempre que la misma no hubiera sido entregada previamente en el mismo Servicio de Euskera, en cuyo caso habrá de especificarse la fecha en la que dicha entrega se hubiera realizado:

- a) Fotocopia de los estatutos o escrituras de constitución.
- b) Certificado de estar inscritos en el Registro correspondiente.
- c) Fotocopia del D.N.I. de la persona representante legal de la persona jurídica, así como acreditación del poder de representación que ejerza.

- d) Fotocopia del N.I.F. de la persona o entidad solicitante.
- e) Ficha de domiciliación bancaria.

4. Deberá adjuntarse la siguiente documentación específica, asimismo recogida en el anexo II – E 3:

a) Descripción del proyecto, especificando los objetivos planteados y el grado de avance que se espera alcanzar durante el ejercicio 2013.

b) Medios económicos con los que se cuenta para el desarrollo del proyecto: Presupuesto detallado de ingresos y gastos, con indicación de los recursos financieros de la propia entidad previstos para la realización del mismo. Al efecto habrá que cumplimentar los datos del anexo I – E 1.

c) Relación por categorías profesionales del personal receptor del proyecto en la empresa.

5. Deberán detallarse los siguientes datos específicos, en el mismo anexo II – E 3:

a) Número de veces que la entidad se ha presentado a esta convocatoria de subvención, incluida ésta de 2013.

b) Porcentaje que supone el número de personas trabajadoras que participan directamente en el proyecto sobre el total de personas empleadas de la empresa.

c) Detalle de las cantidades destinadas en el proyecto a la euskaldunización y a la capacitación lingüística del personal.

6. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá a la interesada, para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

7. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Euskera podrá requerir a las solicitantes cuanta documentación complementaria estime oportuna, para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si la peticionaria requerida no presentará la documentación en el plazo que se establezca, se la tendrá por desistida de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

8. Las entidades que hayan modificado sus datos bancarios, las recién constituidas y las que no se hayan acogido a ninguna de las convocatorias de la Diputación Foral de Bizkaia del ejercicio 2012 para la promoción de euskera deberán presentar la ficha de acreedor debidamente cumplimentada, previo a la tramitación del pago de la subvención por parte del Servicio de Euskera.

Artículo 5.—Criterios de valoración

1. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos, se establecen como sigue:

- Categorías a los que va dirigido el plan y porcentaje que supone el número de personas trabajadoras receptoras del proyecto sobre el total de personas empleadas de la empresa, así como cantidad dedicada en el plan por cada persona receptora del proyecto (se valorará hasta 40 puntos del total a conceder).

- Ezarritako helburuak erdiesteko bidean aurreikusitako aurrerapen mailara iristeko planaren egokitasuna (eman beharreko kopuru osoaren 30 punturaino baloratuko da).
- Langileen euskalduntzera eta hizkuntz gaikuntzara planak bideratzen duen diru-kopurua, kontuan harturik zenbat langilek parte hartuko duten proiektuan (eman beharreko kopuru osoaren 30 punturaino baloratuko da).

2. Izakunde batek baino gehiagok elkarlanean gauzatzekoak diren egitarauen kasuan, zehaztu beharko da aurrekontuan zein den bakoitzak egiten duen ekarpena eta zein gastu hartzen dituen bere gain, betiere, eskabidea pertsona juridiko batek egingo du. Horrela egiten ez bada, proiektu horiei gaitz iritziko zaie.

3. Proiektuak aztertu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak gutxieneko puntuazioa ezar dezake, eta hortik behera geratzen diren erakunde eskatzaileek ez dute eskubiderik izango diru-laguntzarik jasotzeko.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jardueraren aurrekontua hartuko da oinarri (gutxienez, I – E 1 eranskinen ereduaren dauden xehetasunekin aurkeztu behar da aurrekontua). Aldez aurretik, behar izanez gero, konputatu ezin diren gaindikinen arazketa egingo da, hain zuzen ere, erakunde bakoitzak aurkeztu dituen aurrekontuetako kapituluko gastuen portzentajeak erkatuta, eta deialdiaren xede diren objektuekin zuzenean lotu gabeko gastuak kendu egingo dira.

5. Aurrekontu partidan ezarritako zenbatekoa proiektuen artean banatuko da, proportzionalki, atera duten puntuazioaren arabera, beti ere artikuluko honen 3. atala jarraituz ezarritako gutxieneko puntuazioa atera ez duten proiektuak baztertu eta gero.

6. Emango diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa %40koa izango da, aurkeztu den proiektuaren aurrekontu araziaren gainean. Dena dela, diru-laguntza ez da izango hogeita hamabost mila (35.000) euro baino handiagoa.

7. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzaren ehunekoa handitu ahal izango du, epaimahai kalifikatzaileak uste badu planen batek aparteko ekarpena egiten diola edo bereziki eragiten diola euskararen sustapenari, zabalkundeari edo normalizazioari. Orduan, diru-laguntzaren portzentajea arazitako aurrekontuaren %60eraino handitu ahal izango da, beti ere, aurreko atalean ezarritako 35.000 euroko muga gainditu gabe.

8. Behin eskabideen lehentasunaren araberrako hurrenkera ezarri eta gero, izakunde hautagaien gaindikinak gainontzeko izakunde onuradunen mesederako izan ahaliko dira, eta artikuluko honen 5. atalean ezarritakoa betez banatuko da.

6. artikulua.—*Aholkularitza*

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuak.

7. artikulua.—*Epaimahai kalifikatzailea*

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratu da. Epaimahaideak Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen 3.7 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kultura Saileko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

8. artikulua.—*Ebazpena*

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten zerga-betebeharrak eta

— Idoneidad del plan para alcanzar el grado de avance planificado para el logro de los objetivos establecidos (se valorará hasta 30 puntos del total a conceder).

— Cantidad destinada en el plan a euskaldunización y capacitación lingüística del personal en relación con el número de personas trabajadoras receptoras del proyecto (se valorará hasta 30 puntos del total a conceder).

2. En el caso de los programas cuya realización corra a cargo de diferentes entidades, en colaboración, se deberá especificar en el presupuesto la aportación y los gastos correspondientes a cada una, si bien la solicitud la deberá realizar una sola de ellas. De no proceder así, se desestimarán dichos proyectos.

3. Una vez analizados los proyectos, el tribunal calificador podrá establecer un mínimo de puntos por debajo del cual las entidades solicitantes no tendrían derecho a subvención.

4. La determinación de la cuantía de la subvención se realizará a partir del presupuesto de la actividad (que se presentará como mínimo con el grado de detalle que aparece en el modelo propuesto en el anexo I – E 1), una vez realizada, en su caso, la depuración de los excesos no computables (por comparación de los porcentajes de gasto en los diferentes capítulos de los presupuestos presentados por cada entidad) y de gastos no directamente relacionados con el objeto de la convocatoria.

5. La cuantía consignada en la partida presupuestaria se distribuirá de manera proporcional a la puntuación obtenida por cada proyecto, una vez excluidos aquellos que no hubieran obtenido la puntuación mínima establecida de acuerdo con el apartado 3 de este artículo.

6. La subvención adjudicada a cada proyecto no superará el 40% del presupuesto depurado del proyecto presentado. No obstante, no será superior a treinta y cinco mil (35.000) euros.

7. No obstante, la Diputación Foral de Bizkaia podrá aumentar el porcentaje de subvención, hasta un máximo del 60% del presupuesto depurado, a favor de aquellos planes que el tribunal calificador considere que suponen una contribución extraordinaria o repercuten de forma especial en la promoción, difusión o normalización del euskara, sin superar el límite de 35.000 euros establecido en el apartado anterior.

8. Una vez establecido el orden de prelación entre las distintas solicitudes, los excesos de las entidades candidatas podrán redundar en el resto de las entidades beneficiarias y se distribuirá de acuerdo con lo establecido en el apartado 5 de este artículo.

Artículo 6.—*Asesoramiento*

El Servicio de Euskera del Departamento Foral de Cultura prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta referida al presente Decreto Foral.

Artículo 7.—*Tribunal calificador*

1. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyos miembros serán designados por la diputada foral de Cultura mediante Orden Foral. A tal efecto se cumplirá lo establecido en el artículo 3.7 de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad entre mujeres y hombres.

2. El tribunal calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Cultura, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

Artículo 8.—*Resolución*

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las interesadas.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Euskera comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de

Gizarte Segurantzarekikoak. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzaileraren batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru (3) hila-beteko izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Ebazpena Kultura Saileko foru diputatuak emango du, epai-mahaiak egindako proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitatzeko da; hala ere, geroago ebazpen adierazia eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi honetarako eskabidea aurkeztu duten pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraziko zaie, posta ziurtatuaren bidez, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da. Foru agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak errekurtsio hauek jar ditzakeela: Foru agindu horren aurka aurrerako berraztertze errekurtsioa jar dezake, Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako foru diputatu andreaken aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

5. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

6. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

7. Diru-laguntzak emateko ebazpenaren ondoren, ebazpena jakinarazten denetik zenbatuta hamar (10) egun balioduneko epean eskatzaile onuradunetako batek uko egiten badiola laguntzari, diru-laguntzaren zenbatekoa beste eskatzaileen artean banatu ahal izango da.

9. artikulua.—*Ordainketa*

1. Diru-laguntza eman zaiola adierazten duen jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badiola beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Diru-laguntza eman dela «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu ondoren, 10 egun baliodun igaro eta berehala, Euskara Zerbitzuak hari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

10. artikulua.—*Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa*

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

2. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-lagun-

tas obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social. Si como consecuencia de tal comprobación resultará que alguna solicitante incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de tres (3) meses, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes.

La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Cultura a propuesta del tribunal calificador.

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las personas y entidades interesadas que hayan presentado solicitud a los efectos de esta convocatoria pública, por correo certificado, y publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la persona interesada interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la Ilma. Sra. diputada foral de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

5. Las subvenciones del presente Decreto Foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

6. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos otorgados por otras administraciones o entes públicos, municipales, autonómicos, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, dado que el importe de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad que desarrolle la entidad beneficiaria.

7. Si tras la resolución de concesión se produjera la renuncia de alguna de las solicitantes beneficiarias en el plazo de diez (10) días hábiles desde la notificación de la resolución, la cuantía de su subvención podrá redundar en los demás solicitantes.

Artículo 9.—*Pago*

1. Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de recepción de la notificación de la concesión de la subvención la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma se entenderá que ésta queda aceptada.

Inmediatamente al transcurso de 10 días hábiles tras la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de la concesión de la subvención, el Servicio de Euskera procederá a tramitar el abono de la misma ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las entidades beneficiarias.

2. Previo al pago de la subvención, se comprobará que las beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna beneficiaria incumple cualquiera de las obligaciones señaladas, ésta será requerida para que en el plazo de 10 días regularice dicha situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida.

Artículo 10.—*Devolución a iniciativa de la perceptora*

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

2. De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última. En este supuesto,

tza, foru erakundeak eskatu gabe. Halakoetan, diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

3. Onuradunak berak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori diru-laguntzaren kudeaketaz arduratu den foru zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: Itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

4. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio diru-laguntzaren kudeaketaz arduratzen den Kultura Saileko foru zerbitzuari.

11. artikulua.—*Betebeharrak*

1. Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen onuradunek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Jarduera egitea.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren aurrean honako hauek justifikatzea: Proiektua burutu dela, laguntza jasotzeko baldintzak bete direla eta diru-laguntza jaso duen proiektuaren zenbateko araztuaren gastua egin dela. Horretarako, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira Euskara Zerbitzuko bulegoetan (Rekalde zumarkalea, 30-5.), III – E 4 eranskinean jasotako inprimakiarekin batera, 2014ko otsailaren 28a baino lehen:
 - a) Diruz lagundutako jardueren nondik norakoei buruzko memoria, bertan honako hauek zehaztuta: Noraino burutu diren jarduerak, eskaini diren zerbitzuak eta bete diren eginkizunak, bai eta diruz lagundutako proiekturako erabili diren giza baliabideak eta baliabide materialak ere.
 - b) Diruz lagundutako jarduerari dagozkion diru-sarrera eta gastuen behin betiko zerrenda xehatua, erakundeak ontzat emana.
 - c) Gastuen jatorrizko frogagiriak edo Euskara Zerbitzuan egiaztatutako fotokopiak; frogagiri horiek izango dira aurrekontu araztuaren kontzeptuei buruzkoak. Aurkeztuko diren frogagiri eta faktura guztien zerrenda ere ekarri beharko da, zenbatekoa eta aurrekontuaren zein atali dagokien zehaztuta.
 - d) Diruz laguntzeko gastuaren aurrekontua justifikatzeko, foru diru-laguntzaren erakunde onuradunak egiaztatutako aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkieten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontratazioarako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.
 - e) Hainbat erakundek lankidetzan egindako proiektuen kasuan, aurrekontuan jasotakoa kontuan hartuta aurkeztuko dira frogagiriak.
- Udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek xede bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren berri ematea laguntza eman duen erakundeari.
- Kulturako Foru Sailari laguntza ematea hala eskatzen bazaie, eta egin beharreko proiektuaren gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- Kulturako Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea.

la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

3. La devolución de la subvención foral a instancia de la propia beneficiaria de la misma se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio foral gestor de la subvención. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

4. Una vez practicado el abono por la beneficiaria de la subvención foral en una entidad financiera, habrá de remitirse copia de la misma o justificante del respectivo ingreso al Servicio foral gestor del departamento de Cultura.

Artículo 11.—*Obligaciones*

1. Las beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente Decreto Foral se comprometen a:

- Realizar la actividad.
- Justificar ante el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia la realización del proyecto, el cumplimiento de las condiciones que fundamentaron su concesión y la aplicación del gasto del importe depurado del proyecto subvencionado, mediante la presentación en las oficinas del Servicio de Euskera (Bilbao, Alda. Rekalde, 30-5º) de la siguiente documentación, acompañada del impreso cumplimentado incluido en el anexo III – E 4, fijándose como último día para ello el 28 de febrero de 2014:
 - a) Memoria explicativa del desarrollo de las actividades subvencionadas, especificándose el grado de ejecución de las mismas, indicando los servicios ofrecidos y las funciones realizadas desde el mismo, así como los recursos humanos y materiales destinados al proyecto subvencionado.
 - b) Relación definitiva y detallada de ingresos y gastos correspondientes a la actividad o servicio subvencionado con el visto bueno de la Entidad.
 - c) Justificantes originales de los gastos o las fotocopias compulsadas o cotejadas en el Servicio de Euskera; dichos justificantes deberán corresponder a conceptos del presupuesto depurado. Se deberá acompañar un listado de los justificantes y facturas presentadas señalando su importe y la partida del presupuesto a la que corresponde.
 - d) A los efectos de la justificación del presupuesto de gasto subvencionable, la entidad beneficiaria de la subvención foral debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las ofertas de los tres diferentes proveedores realizadas cuando se superen las cuantías establecidas en la correspondiente normativa de contratación administrativa para el contrato menor, salvo que por las especiales características del mismo no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud.
 - e) En el caso de los proyectos que se realicen en colaboración por distintas entidades, los justificantes se presentarán atendiendo a lo recogido en el presupuesto correspondiente.
- Comunicar a la entidad concedente la obtención de otra u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de otra administración o ente público municipal, autonómico, estatal o internacional
- Colaborar con el Departamento Foral de Cultura en aquellos supuestos, en que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito de la entidad (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.).
- Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los Departamentos Forales de Cultura, y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

- Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

«Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

- Jarduera bakoitzerako sortu diren katalogoen, kartelen edo izaera grafikoa duen beste edozein agiriren aleak aurkeztea. Ale horietan jarduerak Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso duela agerrarazi behar da.
- Diru-laguntza jaso duen proiektuaren kanpoko publizitate eta jakinarazpen guztiak gutxienez euskaraz egitea.
- Bizkaiko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduen 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

2. Deialdi honi dagokionez, foru diru-laguntza baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduen 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak. Laguntzako jarduerari dagokion zenbatekoaren %90 azpikontratatu ahal izango da, gehienez.

12. artikulua.—*Itzulketak*

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko artikuluan edo Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- Justifikatu beharreko guztia justifikatzen ez bada.
- Emandako diru-laguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.
- Diru-laguntza justifikatzen ez bada edo foru dekretu honek ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den diru-laguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu kudeatzaileak eskaera egin ondoren.
- Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- Foru dekretu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen ez badira.
- Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantziazio gehiago jasotzen bada, diru-laguntza itzuli beharko da.

13. artikulua.—*Zehapen-araubidea*

1. Onuradunak egiten badu Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluko I. kapituluaren edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (foru dekretu horrek lehenago aipatutako 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen diru-laguntzen erregelamendua onartzen du) jasota dauden egite edo ez-egiteren bat, onuradunari zehapen-prozedura ireki ahal izango zaio, titulu bereko II. kapitulu-

- En todo material editado y en toda comparecencia pública realizada con posterioridad a la concesión, deberá hacerse constar el patrocinio de la Diputación Foral de Bizkaia; se utilizarán, para ello, obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia, incluyendo junto al logotipo la siguiente frase literal:

«Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» o bien

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

- Presentar ejemplares de catálogos, carteles u otra documentación de carácter gráfico elaborado en o para el desarrollo de cada una de las actividades, debiendo constar en aquellos que éstas han sido subvencionadas por la Diputación Foral de Bizkaia
- Toda publicidad y comunicación exterior del proyecto subvencionado por parte de la beneficiaria deberá realizarse por lo menos en euskara.
- Las demás previstas en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia y en los artículos 54 y siguientes del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo.

2. A los efectos de la presente convocatoria, las beneficiarias de subvención foral quedan obligadas al cumplimiento de los requisitos y prohibiciones regulados en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y en el artículo 53 del Reglamento foral de subvenciones, en materia de subcontratación. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90% del importe de la actividad subvencionada.

Artículo 12.—*Reintegro*

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en el artículo anterior o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, entre otras:

- Incumplimiento de la obligación de justificación.
- No cumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida.
- La no justificación y la justificación insuficiente o deficiente en los términos establecidos en el presente Decreto Foral conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del servicio gestor de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.
- Incumplir los demás supuestos previstos en el presente Decreto Foral.
- La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

2. El exceso de financiación, con relación al coste de la actividad subvencionada, también constituirá motivo de reintegro.

Artículo 13.—*Régimen sancionador*

1. La comisión por la beneficiaria de cualquiera de las acciones u omisiones contenidas por el capítulo I del título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, podrá dar lugar a la apertura de un procedimiento sancionador, a tenor de lo dispuesto en el artículo 61 de la citada Norma Foral, que se tramitará conforme a lo dispuesto en el capítulo II del título IX de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico

luarekin bat etorrita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. tituluko II. kapituluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen xedatutakoa dela bide.

2. Arau-haustea diru-zigorrek ezarritako zigortuko dira. Zigor horiek honako hauek izan daitezke:

a) Isun finkoa, 75 eta 6.000 euro bitartekoa,

b) Isun proportzionala: Behar ez bezala lortu edo aplikatu, edo justifikatu gabe utzi den kopuruaren bestekoa izango da gutxienez, eta kopuru hori hiru halako gehienez.

3. Era berean, honako zehapen hauek ezartzeko erabakia hartu ahal izango da:

a) Bost urtez, gehienez, foru sektore publikoko diru-laguntza publikoak eta abalak jaso ahal izateko aukera galtzea.

b) Bost urtez, gehienez, erakunde laguntzaile gisa aritzeko aukera galtzea.

c) Bost urtez, gehienez, Foru Aldundiko sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko debekua.

4. Zehapena ezarri ala ez, bidegabe lortutako diru-laguntzaren zenbatekoa itzuli beharko du onuradunak.

14. artikulua.—Aurrekontu-partida

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2013. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

Berrehun eta hamar mila euro (210.000 euro), 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren hurrengo partidaren pentzuan: G/0406/450103/44300/0000 proiektua 2008/0038.

2. Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren 56.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru dekretu honen babespean emaniko diru-laguntzak baldiodun izateko baldintza bat bete beharko da: Dagokion ekitaldian foru dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatea. Hala, korik ez bada, balio gabe geratuko dira diru-laguntza horiek.

3. Deialdiko eskaera guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

15. artikulua.—Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Bizkaiko Foru Aldundiak 2010eko martxoaren 23an emaniko 34/2010 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen diru-laguntzak emateko erregelamendua, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena, eta, osagarri modura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta beraren izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen arau-emaile.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa

Ahalmena ematen zaio Kultura Saileko foru diputatuari foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2012ko abenduaren 4an.

Kulturako foru diputatua,
MIREN JOSUNE ARIZTONGO AKARREGI

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

dico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Las infracciones se sancionarán mediante la imposición de sanciones pecuniarias, que podrán consistir:

a) En multa fija, comprendida entre 75 y 6.000 euros.

b) Multa proporcional, que podrá ir del tanto al triple de la cantidad indebidamente obtenida, aplicada o no justificada.

3. Asimismo, se podrá acordar la imposición de las sanciones siguientes:

a) Pérdida, durante un plazo de hasta cinco años, de la posibilidad de obtener subvenciones públicas y avales del sector público foral.

b) Pérdida durante el plazo de hasta cinco años de la posibilidad de actuar como entidad colaboradora.

c) Prohibición, durante un plazo de hasta cinco años, para celebrar contratos con cualquier entidad del sector público foral.

4. La imposición de sanción será independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de subvención.

Artículo 14.—Partida presupuestaria

1. El límite del presupuesto vigente en el año 2013 para la concesión de las subvenciones de la presente convocatoria es el siguiente:

Doscientos diez mil euros (210.000 euros), con cargo a la partida presupuestaria número G/0406/450103/44300/0000 proyecto 2008/0038 del ejercicio 2013.

2. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, Presupuestaria General, la validez del otorgamiento de las subvenciones concedidas al amparo del presente Decreto Foral queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente.

3. Si una vez resueltas todas las solicitudes de la convocatoria no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante.

Artículo 15.—Régimen jurídico

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente Decreto Foral, serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral; el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo; y supletoriamente la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

DISPOSICIONES FINALES

Primera

Se faculta a la diputada foral titular del Departamento de Cultura para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el mejor desarrollo del presente Decreto Foral.

Segunda

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 3 de diciembre de 2012.

Diputada foral de Cultura,
MIREN JOSUNE ARIZTONGO AKARREGI

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

**I. eranskina / Anexo I****Diru-laguntza eskabidea
Solicitud de subvención****BFAren 166 / 2012 FD
DF de DFB 166 / 2012****Euskara zerbitzua / Servicio de euskera****Merkataritza-sozietateen, kooperatiben, banakako
enpresa buruen eta profesionalen euskararen erabilera
sustatzeko planak - 2013****Planes de promoción del uso del euskara de sociedades
mercantiles, cooperativas, personas empresarias
individuales y profesionales - 2013****E1**

Data / Fecha

Erregistro zk.
N.º de registro**ESKATZAILAREN DATUAK¹ / DATOS DE LA SOLICITANTE¹**

IFZ / N.I.F.		Deiturak eta izena, izendura edo sozietatearen izena ² / Apellidos y nombre o razón social ²					
Sexua ³ / Sexo ³ ☐ Gizona / Hombre ☐ Emakumea / Mujer		Helbidea (kalea, plaza...) / Domicilio (calle, plaza, etc.)					
Etxe zk. N.º casa	Eskailera Escalera	Solairua Piso	Atea / Puerta	Udaleria / Municipio			P.K. / C.P.
Lurraldea ⁴ / Territorio ⁴			Telefonia / Teléfono		Sakelakoa / Móvil		Faxa / Fax
Posta elektronikoa / Correo electrónico					Web orria / Página web		

ORDEZKARIAREN DATUAK⁵ / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE⁵

IFZ / N.I.F.	Deiturak eta izena / Apellidos y nombre		
Eskatzailearekin harremana / Relación con la Solicitante			
Telefonia / Teléfono	Sakelakoa / Móvil	Faxa / Fax	Posta elektronikoa / Correo electrónico

BANKU HELBIDERAKETAREN DATUAK / DATOS DE DOMICILIACIÓN BANCARIA

Kontu korrontearen jabearen izen-deiturak / Nombre y apellidos de la persona titular de la cuenta															
Erakundea / Entidad		Sukurtsalaren zk. Sucursal n.º		KD / DC		Kontuaren zk. / N.º de cuenta									

¹ Eskatzailearen datuak: eskabidea aurkeztzen duen pertsona ez bada proiektua egin behar duena, haren datuak adierazi behar dira «Ordezkararen datuak» atalean.

² Izen-abizenak, pertsona fisiko bat bada, edo, izen soziala, erakunde bat bada.

³ Dagokion laukitxoak markatu baldin eta pertsona fisiko bat bada (estatistikak egiteko eskatzen da).

⁴ Lurralde Historikoa (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba) edo probintzia/autonomia-erkidegoa / estatua; kasuan-kasuan dagokiona.

⁵ Ordezkarria dagoenean soilik bete behar da atal hau, eta adierazi behar da eskatzailearekin zein harreman daukan.

¹ Datos de la Solicitante: En caso de que la persona que presenta la solicitud no coincida con la persona que desarrolla el proyecto, debe rellenar sus datos en «Datos de la Persona representante».

² Nombre y apellidos en caso de que se trate de una persona física, o Razón Social en caso de una entidad.

³ Marcar la cuadrícula correspondiente en caso de que se trate de una persona física (se solicita para fines estadísticos).

⁴ Territorio Histórico (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba-Alava) o provincia/comunidad autónoma/estado, en su caso.

⁵ Solo debe rellenar este apartado si existe dicha figura, indicando su relación con la Solicitante.

PROIEKTUAREN DATUAK / DATOS DEL PROYECTO		
Proiektua / Proyecto		
Proiektuaren zenbatekoa / Importe proyecto	Eskatutako kopurua / Cantidad solicitada	Eskatzailearen ekarpena / Aportación Solicitante

AURREKONTU BANATUTA / PRESUPUESTO DESGLOSADO	
SARRERAK / INGRESOS	
1. ESKATZAILEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE LA SOLICITANTE	€
2. DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK / SUBVENCIONES PÚBLICAS	
Estatua / Estado	€
Eusko Jauriaritza / Gobierno Vasco	€
Udalak / Ayuntamientos	€
Beste batzuk / Otros	€
3. ERAKUNDE PRIBATUEN EKARPENAK / APORTACIONES DE ENTIDADES PRIVADAS	€
4. JARDUERAREN SARRERAK / INGRESOS PROPIOS DE LA ACTIVIDAD	€
5. BESTE SARRERA BATZUK / OTROS INGRESOS	€
6. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN DEIALDI HONETAN ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA SUBVENCIÓN SOLICITADA A ESTA CONVOCATORIA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA	€
GUZTIRA / TOTAL	€

1. Bazkideen kuotak, fondo propioak eta abar sartuko dira.
2. Atal bakoitzean, guztira jasotako diru-laguntzen kopurua adieraziko da.
3. Guztira jasotako ekarpenen kopurua adieraziko da.
4. Hauek adieraziko dira: Inskripzioak, salmentaren ondoriozko sarrerak, katalogoen salmenta, leihatilako salmenta, publizitatea...
5. Aurreko ataletan katalogatu ezin diren sarrerak.

1. Se incluirán: cuotas de las personas socias, fondos propios, etc.
2. En cada apartado se consignará el total de las subvenciones recibidas.
3. Se consignará el total de las subvenciones recibidas.
4. Se incluirán :inscripciones, ingresos por ventas, venta de catálogos, taquillas, publicidad ...
5. Ingresos no catalogables en los demás apartados.

GASTUAK / GASTOS	
1. LANGILEEN GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL	€
2. KANPOKO ZERBITZUAK / SERVICIOS EXTERIORES	€
a) Errentamenduak / Arrendamientos	€
b) Konponketa eta kontserbazioa / Reparación y conservación	€
c) Garraioak / Transportes	€
d) Aseguru-primak / Primas de seguros	€
e) Zabalkunde gastuak, Publizitatea eta propaganda / Gastos de difusión, Publicidad y propaganda	€
f) Hornidurak (ura, argia, telefonoa...) / Suministros (agua, luz, teléfono, ...)	€
g) Garbiketa / Limpieza	€
h) Kanpoko kontratazioak / Contrataciones externas	€
i) Material grafikoak, ikus-entzunezkoa, eta abar editatzea / Edición material gráfico, audiovisual, etc.	€
j) Ekoizteko eta muntatzeko gastuak / Gastos de producción y montaje	€
k) Kanpoko beste zerbitzu batzuk / Otros servicios exteriores	€
3. FINANTZA-GASTUAK / GASTOS FINANCIEROS	€
4. KUDEAKETA HOBETZEKO TRESNETAN EGINIKO GASTUAK / GASTOS INSTRUMENTOS DE MEJORA DE LA GESTIÓN	€
5. INBERTSIOAK / INVERSIONES	€
6. BESTE BATZUK / OTROS	€
GUZTIRA / TOTAL	€

1. Hauek adieraziko dira: langile propioen soldatak, karga sozialaketa abar.
2. f) Hauek adieraziko dira: ura, argia...
 - i) Kartelak, katalogoak eta material grafikoak diseinatu eta inprimatzea.
 - j) Ekoizpena eta muntaia: jendea kokatzea, leihatilak, argiak, soinua, langile teknikoak...
 - k) Komunikazio-gastuak: telefonoa, faxa, mezularitza...
3. Maileguen interesen gastuak eta kanpoko finantziaketa.
4. Kudeaketa hobetzeko erakundearen gogoeta estrategikoei dagozkien gastuak, plan estrategikoak, bideragarritasun-planak, erakundearen kudeaketa hobetzeko tresnak, arloan espezializatutako enpresek egiten dituztenean.
5. Hauek adieraziko dira: azpiegiturak, eraikuntzak, eta abar.
6. Aurreko ataletan katalogatu ezin diren gastuak.

1. Se incluirán: Salarios, cargas sociales, etc. del personal propio.
2. f) Se incluirán: agua, luz ...
 - i) Diseño e impresión de carteles, catálogos y material gráfico.
 - j) Producción y montaje: acomodación, taquillas, iluminación, sonido, personal técnico ...
 - k) Gastos de comunicación: teléfono, fax, mensajería ...
3. Gastos de intereses de préstamos y financiación externa.
4. Gastos correspondientes a reflexiones estratégicas de las entidades para mejorar la gestión: planes estratégicos, de viabilidad, instrumentos de mejora de la gestión de las entidades, cuando se acometan a través de empresas especializadas en la materia.
5. Se incluirán: infraestructuras, construcciones, etc.
6. Gastos no catalogables en los demás apartados.

DIRU-LAGUNTZA ONARTZEKO SINADURA ETA BALDINTZAK / FIRMA Y CONDICIONES DE ACEPTACIÓN

☐ Egunero / <i>Todos los días</i> ☐ Astean behin / <i>Una vez a la semana</i> ☐ Hilean behin / <i>Una vez al mes</i> ☐ Hiruhilabetea behin / <i>Una vez al trimestre</i> ☐ Urtean behin / <i>Una vez al año</i>				

**III. eranskina / Anexo III**

Diru-laguntzaren zuriketa
Justificación de subvención

BFAre 167 / 2012 FD
DF de DFB 167 / 2012

Euskara zerbitzua / Servicio de euskera

Euskara informazio eta komunikazioaren
teknologietan egoteko sustapena - 2013

*Fomento de la presencia del euskara
en las tecnologías de la información
y de la comunicación - 2013*

E4

Data / Fecha

Erregistro zk.
N.º de registro**ESKATZAILAREN DATUAK / DATOS DE LA SOLICITANTE**

IFZ / N.I.F.	Deiturak eta izena, izendura edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social
--------------	--

PROIEKTUAREN DATUAK / DATOS DEL PROYECTO

Proiektua / Proyecto		
Jasotako kopurua / Cantidad recibida	Hasierako aurrekontua / Presupuesto inicial	Beteazitako aurrekontua / Presupuesto ejecutado

BETEARAZITAKO AURREKONTUA / PRESUPUESTO EJECUTADO**SARRERAK / INGRESOS**

1. ESKATZAILEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE LA SOLICITANTE	€
2. DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK / SUBVENCIONES PÚBLICAS	
Dekretu honetan emandako diru-laguntza / Subvención concedida en este decreto	€
Estatua / Estado	€
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco	€
Udalak / Ayuntamientos	€
Beste batzuk / Otros	€
3. ERAKUNDE PRIBATUEN EKARPENAK / APORTACIONES DE ENTIDADES PRIVADAS	€
4. JARDUERAREN SARRERAK / INGRESOS PROPIOS DE LA ACTIVIDAD	€
5. BESTE SARRERA BATZUK / OTROS INGRESOS	€
GUZTIRA / TOTAL	€

GASTUAK / GASTOS

1. LANGILEEN GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL	€
2. KANPOKO ZERBITZUAK / SERVICIOS EXTERIORES	
a) Errentamenduak / Arrendamientos	€
b) Konponketa eta kontserbazioa / Reparación y conservación	€
c) Garraioak / Transportes	€
d) Aseguru-primak / Primas de seguros	€
e) Publizitatea eta propaganda / Publicidad y propaganda	€
f) Hornidurak (ura, argia, telefonoa...) / Suministros (agua, luz, teléfono, ...)	€
g) Garbiketa / Limpieza	€
h) Kanpoko kontratazioak / Contrataciones externas	€
i) Material grafikoa, ikus-entzunezkoa, eta abar editatzea / Edición material gráfico, audiovisual, etc.	€
j) Ekoizteko eta muntatzeko gastuak / Gastos de producción y montaje	€
k) Kanpoko beste zerbitzu batzuk / Otros servicios exteriores	€
3. FINANTZA-GASTUAK / GASTOS FINANCIEROS	€
4. KUDEAKETA HOBETZEKO TRESNETAN EGINIKO GASTUAK / GASTOS INSTRUMENTOS DE MEJORA DE LA GESTIÓN	€
5. INBERTSIOAK / INVERSIONES	€
6. BESTE BATZUK / OTROS	€
GUZTIRA / TOTAL	€

[illegible]

[illegible]

¹ Eranskin honetako «Betearazitako aurrekontua» taulan, zenbatekoren batekin agertzen den gastu-sailkapen bakoitzeko fitxa bana bete (pertsonal-gastuak izan ezik).

¹ Rellenar una ficha por cada clasificación de gasto que figure con algún importe en la tabla «Presupuesto Ejecutado» del presente anexo (excepto gastos de personal).

Bilbon, 2014ko (a)ren(e)(a)n. / Bilbao, a de de 2014.

Sinadura / Firma

Bizkaiko Foru Aldundiaren 168/2012 FORU DEKRETUA, abenduaren 4koa. Honen bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, 2013ko ekitaldian euskara sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten udal-erakunde autonomoei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko.

Euskararen Erabilpena Arautzeko Eusko Legebiltzarraren azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, zioen azalpenean, honako hau ezarri du: «Konstituzioak eta Autonomia-Estatutuak Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten dute euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea».

Hortaz, 26. artikulua Euskal herri-aginteei gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduerak guztiak euskaraz garatu ahal izateko neurri egokiak hartu eta beharrezko bitartekoak jarri behar dituztela xedatzen du.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat helburu ezarri ditu, eta helburu horietako bat euskararen erabilera sustatzea da. Egin-eginean ere, euskara gizartearen eremu guztietara zabaltzeko ahaleginetan, ezinbesteko deritzogu gizarteari hurren zaion arloari, udalerriari, ekiteari. Horregatik, foru dekretu honek behar adinako eskuarteak bideratuko ditu, euskara erabili, zabaldu edo normalizatzea helburu duten planei laguntza emateko, hala udal-erri mailan, nola udalez gaindi ere.

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Kondeira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3 artikulua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu zuen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen Diru-laguntzen Erregelamendua kontuan hartuta, eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen urriaren 18ko 166/2011 Foru Dekretuak emandako ahalmenak aintzat hartuta, Kultura Saileko foru diputatu andreak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2012ko abenduaren 4ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATZEN DA:

1. artikulua.—*Xedea*

1. Foru dekretu honen xedea hauxe da: Udal, udal erakunde autonomo eta mankomunitateei 2013ko ekitaldian diru-laguntzak zelan emango zaizkien arautpetzea, euskara Bizkaiko Lurralde Historikoko tokian tokiko arloan sustatzeko, zabaltzeko edo normalizatzeko.

2. Diru-laguntza jasoko duten proiektuak izango dira, euskara Bizkaiko Lurralde Historikokoan sustatu, zabaldu edota normalizatu nahi duten jarduerak hauek:

a) Euskararen erabilera sustatzen duten egitarau eta jarduerak, baldin eta horien jasotzaileak toki arloko kultur elkarte eta mugimenduak badira, edo kiroltakoak, edo aisia eta astialdikoak; arreta berezia egingo zaie ume eta gazteei.

b) Euskararen sustapenari begira estrategikotzat jotzen diren toki eremuko herritarren talde berezituaren artean euskararen erabilera suspertzen duten egitarau eta jarduerak, bai eta ikuspegi horretatik bereziki jorratu nahi diren arlo zehatz batzuetara zuzendutakoak ere.

c) Euskararen erabilera tokian tokiko eremuko auzokoen artean suspertzera jotzen duten egitarauak, teknologia berrien erretzean.

d) Etorkinen euskara-gaitasuna lantzerantz jotzen duten egitarauak.

e) Euskararen erabilera suspertzeko jardueren egitarauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, udal erakunde autonomo eta mankomunitateek sustatu eta garatzen dituztenak, baldin eta horiek interes berezikotzat hartu ahal baditu Euskara Zuzendaritza Nagusiak.

f) Tokian tokiko euskararen ondarea jaso, zaindu eta berreskuratu nahi duten egitarauak, ondare hori gizartearen barruan era-

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 168/2012, de 4 de diciembre, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, para las actividades que realicen para la promoción, difusión o normalización del euskara durante el ejercicio 2013.

Según señala la Ley del Parlamento Vasco 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera en su Exposición de Motivos «La Constitución y el Estatuto de Autonomía confían a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca la adopción de las medidas encaminadas a asegurar el desarrollo y normalización del uso del euskera».

Así, dispone en su artículo 26 que los poderes públicos vascos deberán tomar las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a los ciudadanos el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

La Diputación Foral de Bizkaia se ha marcado diversos objetivos, entre ellos se encuentra el de promocionar el uso del euskara. Precisamente, en los esfuerzos de extender el euskara a todos los ámbitos sociales, se estima imprescindible incidir en el ámbito más cercano a la propia sociedad: El municipio. Por ello, el presente decreto foral arbitra los medios necesarios para ayudar a los planes municipales y supramunicipales de promoción, difusión o normalización del euskara.

En virtud de lo expuesto, vistos los artículos 17, 39 k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y habida cuenta de las facultades atribuidas por el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, 166/2011, de 18 de octubre, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación de esta Diputación Foral, en reunión de 4 de diciembre del año 2012,

SE DISPONE:

Artículo 1.—*Objeto*

1. Constituye el objeto del presente decreto foral regular la concesión de subvenciones a los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, para promocionar, divulgar o normalizar el euskara en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el ejercicio 2013.

2. Serán objeto de subvención las siguientes actividades que se refieran a la promoción, divulgación o normalización del euskara en el Territorio Histórico de Bizkaia:

a) Programas y actividades que promuevan el uso del euskara en asociaciones y movimientos culturales, deportivos, de ocio y tiempo libre del ámbito local, con especial incidencia en el campo de la infancia y juventud.

b) Programas y actividades que fomenten el uso del euskara en colectivos de la ciudadanía del ámbito local estratégicos para la promoción de la lengua o que promuevan su uso en sectores concretos en los que se quiere incidir especialmente.

c) Programas tendentes a fomentar el uso del euskara en nuevas tecnologías entre la vecindad del ámbito local correspondiente.

d) Programas destinados a la capacitación lingüística de la población inmigrante.

e) Programas de actividades de fomento del uso del euskara promovidos y desarrollados por los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia que puedan ser entendidos como de especial interés por parte de la Dirección General de Euskara.

f) Los programas destinados a recopilar, salvaguardar y recuperar para su uso social el patrimonio del euskara local (cancio-

bili ahal izateko (kantuak, bertsoak, euskalkiak etab.). Egitarauok aintzat hartzeko, nahitaezkoa izango da horiek guztiek izatea Euskaltzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren onirizpena, eskatzaileek eurek ekarri beharrekoa.

g) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egin, ezarri eta garatzeko egitarauak, betiere, egitarauok egon behar zaizkio erakunde eskatzailearen lurralde eremuari; izan ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak onetsi zuen plan hori erabaki baten bidez 1998ko uztailaren 28an.

3. Diru-laguntza eskabidean aurkeztutako proiektuak 2013ko ekitaldiaren barruan burutu beharko dira.

4. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek: Eusko Jaurilaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ezarritako helburuekin ate z datozen proiektuak; egin-eginean ere, plan hori Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak onetsi zuen erabaki baten bidez 1998ko uztailaren 28a. Horiez gainera, ondorik azalduko direnak beren beregi daude foru dekretu honetatik kanpo:

- Udal, udal erakunde autonomo eta mankomunitateen barru euskalduntzera, aldez edo moldez, jotzen duten egitarau eta ekintzak, eta udal, udal erakunde autonomo eta mankomunitateen barruko erabilera planak.
- Gizarte babeseko edukia duten egitarau eta ekintzak.
- Jai egitarauak, herriko jaien ingurukoak edota urtero ospatzen diren jaien ingurukoak. Hala ere, horrelakoak diruz lagungarriak izango dira, baldin eta berorien sustatzailea A eta B eredu soziolinguistikoetako udala, udaletako erakunde autonomoa nahiz mankomunitatea bada eta 10.000 biztanle baino gutxiago baditu.
- Diru-laguntza izenduna xedatzen duten egitarauak.
- Eusko Jaurilaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ezarritako helburuekin bat ez datozen egitarauak; egin-eginean ere, plan hori Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak onetsi zuen erabaki baten bidez 1998ko uztailaren 28an.
- D eredu soziolinguistikoko udalek, udaletako erakunde autonomoek eta mankomunitateek (euskaraz hitz egiten duen populazioa %50ekoa dutenek edo gehiagokoek) sustatu egitarauak, baldin eta horien helburu berezi eta nagusia, euskara bera sustatu, zabaltu eta normalizatzea barik, euren xedea kultur arloko (musika ekitaldiak, antzerkia...) edo josteta arloko (udako kanpamentuak...) beste bat denean.
- Euskararen erabilpenaren neurketa edo inkesta soziolinguistikak egitea helburua duten proiektuak.

5. Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua jasotzen duenarekin bat eginez, gastuak diruz laguntzeko gastutzat joko dira baldin eta hertsiki beharrezkoak badira, 2013an egiten badira eta proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiote. Gastuok aipatutako artikulua ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Ez dira diruz lagunduko udal erakundearen beraren jarduerari datxezkion langileria gastuak.

6. Foru dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea; ez dira inoiz finantzatzeko jardura egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. artikulua.—Onuradunak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, udal erakunde autonomoak eta mankomunitateak izan daitezke foru dekretu honetan araututako diru-laguntzen onuradun, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretakoa batean ez badaude.

2. Emakume zein gizonenganako jokaera berdina ziurtatzen ez duten proiektuak foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira.

nes, versos, dialectos, etc.). Para que estos programas sean tomados en cuenta, será preciso que ellos cuenten con la opinión favorable de Euskaltzaindia o del Instituto Labayru, recabada por la entidad solicitante.

g) Programas para la realización, implantación y desarrollo en el ámbito territorial de la entidad solicitante, del Plan General de Promoción del Uso del Euskara, aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de 28 de julio de 1998.

3. Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2013.

4. Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto Foral los proyectos que no se ajusten a los objetivos establecidos por el Plan General de Promoción del Uso del Euskara del Gobierno Vasco, aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de 28 de julio de 1998. Además, quedan expresamente excluidos:

- Los programas y acciones dirigidos, de un modo u otro, a la euskaldunización interna de los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, así como los planes de uso interno de los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades.
- Los programas y acciones de contenido asistencial.
- Los programas festivos o ligados exclusivamente a las fiestas populares o a la celebración de festividades anuales, salvo los promovidos por ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades que pertenezcan a los modelos sociolingüísticos A y B y que tengan menos de 10.000 habitantes.
- Los programas objeto de subvención nominativa.
- Los programas cuyos objetivos no se ajusten a los establecidos por el Plan General de Promoción del Uso del Euskara del Gobierno Vasco, aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de 28 de julio de 1998.
- En el caso de programas promovidos por ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades que pertenezcan al modelo sociolingüístico D (50% o más de población vasco parlante), aquellos cuyo objetivo específico y principal no sea la promoción, difusión y normalización del euskera en sí misma, sino otros más propios del ámbito cultural (actuaciones musicales, de teatro...), recreativo (campamentos de verano...) etc.
- Los programas destinados a la medición del uso del euskera o encuestas sociolingüísticas.

5. Serán gastos subvencionables aquellos que sean estrictamente necesarios, se realicen durante el año 2013 y respondan de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto de conformidad con el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y se someterán a las condiciones establecidas en el mismo. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

No se considerarán gastos subvencionables los gastos de personal intrínsecos a la actividad de la entidad municipal.

6. La finalidad del presente Decreto Foral será la de apoyar y completar la acción de las entidades solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

Artículo 2.—Beneficiarias

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente Decreto Foral los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia que, no estando incurso en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

2. Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto Foral los proyectos que no garanticen la igualdad de trato entre los dos sexos.

3. Sexua dela-eta inor baztertzeagatik administrazio zeha-penik edo zehapen penalik jaso duten pertsona fisiko nahiz juridi-koek ezin izango dute dekretu honetan araututako deialdian parte hartu, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean; halaber, Ema-kumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Eus-kal Legea dela-eta debeku hori ezarri zaienak ere dekretu honek arautzen duen deialditik kanpo geldituko dira.

3. artikulua.—*Diru-laguntzak emateko araubidea*

Diru-laguntzak norgehiagoka sistema erabiliz, hau da, aur-keztutako eskabideak alderatuko dituen epaimahai kalifikatzaile bat eratu ondoren emango dira; epaimahai horrek, 5. artikuluan eza-rritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabi-deen arteko lehentasun-ordena ezarriko du, eta foru diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aur-keztuko du, betiere aurrekontu-sailean ezarritako zenbatekoa muga izanik.

4. artikulua.—*Eskabide eta epeak*

1. Eskabideak I-E 1 eranskinean jaso den eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira, hurrengo zenbakietan eskatutako agiriekin batera, legeko ordezkariak sinatuta. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Euskara Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahal izango dira (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-5., aste-lehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo, bestela, Herri Admi-nistrazioen Arabide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2013ko urtarrilaren 2tik 31ra izango da, egun bi horiek barne.

3. Foru Dekretu honen II-E 3 eranskinak ezarritakoarekin bat eginez, dokumentazio orokor hau erantsi beharko da. Nolanahi ere, ez da beharrezkoa izango, baldin eta eskatzaileak dokumentazioa aldeztu aurretik Euskara Zerbitzuaren esku utzi badu, eta aurkezte-aren data zehazten badu:

a) Pertsona juridikoaren legeko ordezkariaren N.A.N.aren fotokopia.

b) Izakundea eskatzailearen I.F.Z.ren fotokopia.

c) Banku helbideraketaren fitxa.

4. II-E 3 eranskinean ere jasotzen den dokumentazio espe-zifikoa hau erantsi beharko da:

a) Egitarauko jardueraren proiektu zehatza; proiektu horrek, gutxienez, honakoak jaso behar ditu:

— Proiektuaren azalpena.

— Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren bidez lortu nahi diren helburuak (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko urte anizkoitzeko plan estrategikoa onartuta ez daukaten entitateen kasuetan bakarrik).

— Proiektua garatzeko eskura diren baliabide ekonomikoak: Sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza; bertan adieraziko dira aurkeztutako proiektua gauzatzeko eskatzaileak jarriko dituen finantza-baliabideak. I-E 1 eranskinean jasotzen diren datuak bete beharko dira.

b) Foru dekretu honen 5. artikuluan ezarritako 2. irizpideari dagokion lehentasunezko balorazioa lortu nahi duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte idatz-zati honetan eskatzen diren agiriak. Nahiko izango da ale bat aurkeztea erakunde eskatzaile bakoitzeko, kontuan hartu barik zenbat proiektutarako eskatzen den diru-laguntza.

— Ziurtagiria, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko urte anizkoitzeko plan estrategikoa foru dekretu honen argi-talpen egunean onetsita dutelakoa. Ziurtagiri honen ordeztu, Eusko Jaurlaritzaren egiaztagiria onar daiteke.

— Ziurtagiria, 2012ko kudeaketa plana, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren urte anizkoitzeko plan estrategikoa dagokiona, foru dekretu honen argitalpen egunean onetsita dutelakoa. Ziurtagiri honen ordeztu, Eusko Jaurlaritzaren egiaz-tagiria onar daiteke.

c) 1. artikuluko 2. paragrafoko f) letrako kasuetan, Euskal-tzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren txostena.

3. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el pre-sente Decreto, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, aquellas personas físicas o jurídicas sancionadas admi-nistrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo y las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 3.—*Régimen de concesión*

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la com-paración de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una pre-lación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 5, adjudicando las subvenciones forales a aqué-las que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

Artículo 4.—*Solicitudes y plazos*

1. Las solicitudes de subvención se deberán presentar en el modelo oficial que se adjunta como anexo I-E 1, acompañadas de la documentación exigida en los siguientes apartados y suscritas por la persona representante legal, en las oficinas del Servicio de Euskara del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, sita en Bilbao, Alameda Rekalde, 30-5.º (de lunes a viernes, de 8:30 horas a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Admi-nistraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. El plazo para la presentación de solicitudes será del 2 al 31 de enero de 2013, ambos inclusive.

3. Deberá adjuntarse la siguiente documentación de índole general conforme a lo especificado en el anexo II-E 3 del presente Decreto Foral, siempre que la misma no hubiera sido entregada pre-viamente en el mismo Servicio de Euskera, en cuyo caso habrá de especificarse la fecha en la que dicha entrega se hubiera realizado:

a) Fotocopia del D.N.I. de la persona representante legal de la persona jurídica.

b) Fotocopia del N.I.F. de la entidad solicitante.

c) Ficha de domiciliación bancaria.

4. Deberá adjuntarse la siguiente documentación específica, asimismo recogida en el anexo II-E 3:

a) Un proyecto detallado de la actividad programada, que al menos incluya:

— Descripción del proyecto.

— Objetivos del Plan General de Promoción del Uso del Eus-kara que se persiguen (únicamente en los casos de enti-dades que no tengan aprobado el plan estratégico pluria-nual para el desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskara).

— Medios económicos con los que se cuenta para el desa-rrollo del proyecto: Presupuesto detallado de ingresos y gas-tos, con indicación de los recursos financieros de la propia entidad previstos para la realización del mismo. Al efecto habrá que cumplimentar los datos del anexo I-E 1.

b) Los documentos exigidos en este apartado deberán entregarlos únicamente las entidades interesadas en una valora-ción preferente respecto al segundo de los criterios marcados en el artículo 5 de este decreto. Bastará con presentar un ejemplar de cada uno de ellos por cada entidad solicitante, independien-temente del número de proyectos para los que se solicite ayuda.

— Justificación de tener aprobado el plan estratégico plurianual para el desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskara el día de la publicación del presente decreto foral; en su lugar, se aceptará la acreditación del Gobierno Vasco.

— Justificación de tener aprobado el plan de gestión de 2012, correspondiente al plan estratégico plurianual del Plan Gene-ral de Promoción del Uso del Euskara el día de la publica-ción del presente decreto foral; en su lugar, se aceptará la acreditación del Gobierno Vasco.

c) En los casos de la letra f) del apartado 2 del artículo 1, el informe de Euskaltzaindia o el Instituto Labayru.

5. Berariazko datu hauek zehaztu beharko dira II-E 3 eranskinean bertan:

— Proiektua zein taldean sartzen den (A, B, C, D, E, F, G).

6. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduran erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

7. Beharrezkotzat jotzen denean, Euskara Zerbitzuak formalizatutako eskabideak ebazteko bidezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei. Errekerimendua egin zaion eskatzaileak agiri horiek ezarritako epearen barruan aurkezten ez baditu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta eskabide hori artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren.

8. Banku-datuak aldatu dituzten erakundeek, sortu berriak direnek eta 2012ko ekitaldian Bizkaiko Foru Aldundiaren euskararen sustapenerako deialdietako ezeini heldu ez diotenek hartzekodun-fitxa aurkeztu behar dute, behar bezala beteta, Euskara Zerbitzuak diru-laguntzaren ordainketa tramitatu baino lehen.

5. artikulua.—Ebaluazio-irizpideak

1. Diru-laguntzetarako eskabideak ebazteko proposamena egiteko eta diru-laguntzen zenbatekoa ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak kontuan izango ditu honako irizpideak, bai eta berorien haztapena ere. Haztapena 100 puntukoa izango da, gehienez, eta honetara egingo da:

- Jarduera mota, ondoko lehentasun hurrenkeraren arabera (eman beharreko kopuru osoaren 30 punturaino baloratuko da, eta hori egingo da jardueraren izaera, edukia eta balizko eragin biderkatzailea kontuan hartuz):
 - Kulturako Foru Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiak ezarritako lehentasunen arabera, berebiziko interesa edo garrantzia duten arloak garatzeko proiektuak.
 - Informazio eta komunikazioaren teknologiak.
 - Tokian tokiko euskararen ondarea (aurreko urteetan abiarazitako egitasmoen osagai direnean).
 - Gazteentzako jarduera.
 - Umeentzako jarduera.
 - Etorkinentzako jarduera.
 - Tokian tokiko euskararen ondarea (proiektu berriak).
 - Edonorentzako jarduera.
- Proiektua bat etortzea Eusko Jaurlaritzak onetsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburuekin, tokian tokiko gizarte-hizkuntzazko ezaugarrien arabera, eta kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzak egindako udalerrien sailkapena, berau biztanleriaren eta euskaldunen kopuruaren heinean eginda. Proiektua lehenetsiko da, baldin eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren urte anizkoitzeko plan estrategikoaren eta 2012ko kudeaketa planaren barrukoa bada (eman beharreko kopuru osoaren 30 punturaino baloratuko da).
- Euskaldunen portzentajea udalerriko biztanle guztien eratean (eman beharreko kopuru osoaren 25 punturaino baloratuko da).
- Udalerriko biztanleen kopurua (eman beharreko kopuru osoaren 15 punturaino baloratuko da).

2. Izakunde batek baino gehiagok elkarlanean gauzatzekoak diren egitarauen kasuan, zehaztu beharko da aurrekontuan zein den pertsona juridiko bakoitzak egiten duen ekarpena eta zein gastu hartzen dituen bere gain, betiere, eskabidea pertsona juridiko batek egingo du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrela egiten ez bada, proiektu horiei gaitz irizitzeko zaie.

5. Deberán detallarse los siguientes datos específicos, en el mismo anexo II-E 3:

— Grupo al que pertenece el proyecto (A, B, C, D, E, F, G).

6. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá a la interesada, para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

7. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Euskera podrá requerir a las solicitantes cuanta documentación complementaria estime oportuna, para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si la peticionaria requerida no presentará la documentación en el plazo que se establezca, se la tendrá por desistida de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

8. Las entidades que hayan modificado sus datos bancarios, las recién constituidas y las que no se hayan acogido a ninguna de las convocatorias de la Diputación Foral de Bizkaia del ejercicio 2012 para la promoción de euskera deberán presentar la ficha de acreedor debidamente cumplimentada, previo a la tramitación del pago de la subvención por parte del Servicio de Euskera.

Artículo 5.—Criterios de valoración

1. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos, se establecen como sigue:

- Tipo de actividad en virtud del siguiente orden de prelación (se valorará hasta 30 puntos del total a conceder, teniendo en cuenta la naturaleza misma de la actividad, el contenido de la misma y su posible efecto multiplicador):
 - Proyectos específicos, dirigidos a desarrollar ámbitos de especial interés o que tienen una especial relevancia, en base a las prioridades establecidas por la Dirección General de Euskera del Departamento Foral de Cultura.
 - Tecnologías de la información y comunicación.
 - Patrimonio del euskara local (cuando se trate de proyectos complementarios de otros iniciados en ejercicios anteriores).
 - Dirigida al público juvenil.
 - Dirigida al público infantil.
 - Dirigida a la población inmigrante.
 - Patrimonio del euskara local (nuevos proyectos).
 - Dirigida a la población en general.
- Adecuación de los proyectos a los objetivos establecidos por el Plan General de Promoción del Uso del Euskara aprobado por el Gobierno Vasco, según las condiciones sociolingüísticas del lugar, teniendo en cuenta la clasificación de municipios realizada por el Gobierno Vasco en función de la población y número de personas vasco parlantes. Se dará preferencia al proyecto incluido en el plan estratégico plurianual del Plan General de Promoción del Uso del Euskara y en el plan de gestión de 2012 (se valorará hasta 30 puntos del total a conceder).
- Proporción de vasco hablantes con relación a la población total del municipio (se valorará hasta 25 puntos del total a conceder).
- Número de habitantes del municipio (se valorará hasta 15 puntos del total a conceder).

2. En el caso de los programas cuya realización corra a cargo de diferentes entidades, en colaboración, se deberá especificar en el presupuesto la aportación y los gastos correspondientes a cada persona jurídica, si bien la solicitud la deberá realizar una sola de ellas, de conformidad con lo establecido en el artículo 10.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. De no proceder así, se desestimarán dichos proyectos.

3. Proiektuak aztertu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak gutxieneko puntuazioa ezar dezake, eta hortik behera geratzen diren izakunde eskatzaileek ez dute eskubiderik izango diru-laguntzarik jasotzeko. Era berean, Epaimahaiaren erabakian aurreikusitako ekarpena 200 eurotik beherakoa bada, proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasotzeko eskubiderik izango.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jardueraren aurrekontua hartuko da oinarri (gutxienez, I-E 1 eranskineko ereduaren dauden xehetasunekin aurkeztu behar da aurrekontua). Aldez aurretik, behar izanez gero, konputatu ezin diren gaitzaren arazketa egingo da, hain zuzen ere, erakunde bakoitzak aurkeztu dituen aurrekontuetako kapituluko gastuen portzentajeak erkatuta, eta deialdiaren xede diren objektuekin zuzenean lotu gabeko gastuak kendu egingo dira.

Baldin eta erakunde onuradunen baten eragin-esparruak gaitzitzen badu Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparrua, orduan, aurreko paragrafoaren arabera arazitako kopuruaren gainean ezarriko da egitasmo bakoitzean parte hartzen duten udalerririk bizkaitarretako biztanleek dakarten ehuneko egitasmo horrek hartzen dituen udalerririk guztietako biztanleen gainean.

5. Emango diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa %50koa izango da, aurkeztu den proiektuaren aurrekontu araziaren gainean.

6. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzaren ehuneko handitu ahal izango du, epaimahai kalifikatzaileak uste badu planen batek aparteko ekarpena egiten diola edo bereziki eragiten diola euskararen sustapenari, zabalkundeari edo normalizazioari. Orduan, diru-laguntzaren portzentajea arazitako aurrekontuaren %60raino handitu ahal izango da.

7. Aurrekontu partidan ezarritako zenbatekoa hurrengo irizpidak jarraituz banatuko da diru:

a) 85 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskabideek diru-laguntzaren gehieneko ehuneko aplikatzearen emaitzako zenbatekoa jasoko dute, gehieneko muga kontuan hartuta.

b) Epaimahai kalifikatzaileak ezarritako gutxieneko puntuazioa eta 84 puntu (biak barne) arteko emaitza lortzen duten eskabideek aurkeztu diren eskabideen artean eskura dagoen kredituaren hainbatatzearen emaitzako zenbatekoa jasoko dute, lortu duten puntuazioaren arabera, ezarritako ehunekoak eta gehieneko muga kontuan hartuta. Baliagarri dagoen kreditua 85 puntu gutxienez lortzen dituzten eskabideek diru-laguntzak eman ondoren geratzen dena izango da.

8. Behin eskabideen lehentasunaren arabera hurrenkera ezarri eta gero, izakunde hautagaien gaitzizko gainontzeko izakunde onuradunen mesederako izan ahal izango dira.

6. artikulua.—Aholkularitza

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuak.

7. artikulua.—Epaimahai kalifikatzailea

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeak, epaimahai kalifikatzaile bat eratu da. Epaimahaiakideak Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen 3.7 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kultura Saileko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

8. artikulua.—Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten zerga-betebeharrak eta

3. Una vez analizados los proyectos, el tribunal calificador podrá establecer un mínimo de puntos por debajo del cual las entidades solicitantes no tendrían derecho a subvención. Tampoco tendrán derecho a la misma aquellos proyectos a los que el Tribunal asigne una previsible aportación inferior a 200 euros.

4. La determinación de la cuantía de la subvención se realizará a partir del presupuesto de la actividad (que se presentará como mínimo con el grado de detalle que aparece en el modelo propuesto en el anexo I-E 1), una vez realizada, en su caso, la depuración de los excesos no computables (por comparación de los porcentajes de gasto en los diferentes capítulos de los presupuestos presentados por cada entidad) y de gastos no directamente relacionados con el objeto de la convocatoria.

Si el ámbito de influencia de alguna entidad superará el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia, sobre la cantidad depurada según el párrafo anterior se aplicará el porcentaje que supone la población de los municipios vizcaínos que participan en el correspondiente proyecto sobre el total de la población de los municipios que abarca el mismo.

5. La subvención adjudicada a cada proyecto no superará el 50% del presupuesto depurado del proyecto presentado.

6. No obstante, la Diputación Foral de Bizkaia podrá aumentar el porcentaje de subvención, hasta un máximo del 60% del presupuesto depurado, a favor de aquellos planes que el tribunal calificador considere que suponen una contribución extraordinaria o repercuten de forma especial en la promoción, difusión o normalización del euskara.

7. La cuantía consignada en la partida presupuestaria se distribuirá de acuerdo a los apartados siguientes:

a) Aquellas solicitudes que obtengan una puntuación de 85 o más puntos obtendrán la cuantía resultante de aplicar el porcentaje máximo de subvención establecido para cada caso.

b) Aquellas solicitudes que obtengan una puntuación comprendida entre la mínima establecida por el tribunal calificador y 84 puntos, ambos incluidos, obtendrán la cantidad resultante del prorrateo del crédito disponible entre dichas solicitudes, atendiendo a la puntuación obtenida, y teniendo siempre en cuenta los porcentajes y límites establecidos en cada caso. El crédito disponible será el que resulte una vez otorgadas las subvenciones a aquellas solicitudes que hubieran obtenido una puntuación mínima de 85.

8. Una vez establecido el orden de prelación entre las distintas solicitudes, los excesos de las entidades candidatas podrán redundar en el resto de las entidades beneficiarias.

Artículo 6.—Asesoramiento

El Servicio de Euskera del Departamento Foral de Cultura prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta referida al presente Decreto Foral.

Artículo 7.—Tribunal calificador

1. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyos miembros serán designados por la diputada foral de Cultura mediante Orden Foral. A tal efecto se cumplirá lo establecido en el artículo 3.7 de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad entre mujeres y hombres.

2. El tribunal calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Cultura, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

Artículo 8.—Resolución

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las interesadas.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Euskera comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de

Gizarte Segurantzarekikoak. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzaileraren batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea bost (5) hila-betekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Ebazpena Kultura Saileko foru diputatuak emango du, epai-mahaiak egindako proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitatzeko joko da; hala ere, geroago ebazpen adierazia eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi honetarako eskabidea aurkeztu duten pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraziko zaie, posta ziurtatuaren bidez, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da. Foru agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen.

Foru agindu horrek administrazio bidea agortu du, baina interesdunek honako bide hauetarikoren batera jo dezakete haren aurka egiteko: Errekerimendua egin diezaiokete Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko foru diputatuari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, foru agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera bi (2) hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezakete zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, jakinarazpena egin eta bi (2) hilabeteko epean. Aurrez errekerimendua egin bada —Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 44. artikuluan zehazten denaren arabera—, erabaki adieraziaren jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko da errekurtsoa aurkezteko epea, edo, bestela, hura ustez ezetsitatzeko eta biharamunean.

5. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatu ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

6. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

7. Diru-laguntzak emateko ebazpenaren ondoren, ebazpena jakinarazten denetik zenbatuta hamar (10) egun balioduneko epean eskatzaile onuradunetako batek uko egiten badiola laguntzari, diru-laguntzaren zenbatekoa beste eskatzaileen artean banatu ahal izango da.

9. artikulua.—*Ordainketa*

1. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badiola beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Diru-laguntza eman dela «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu ondoren, 10 egun baliodun igaro eta berehala, Euskara Zerbiztuak hari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

10. artikulua.—*Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa*

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social. Si como consecuencia de tal comprobación resultará que alguna solicitante incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de cinco (5) meses, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes.

La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Cultura a propuesta del tribunal calificador.

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las personas y entidades interesadas que hayan presentado solicitud a los efectos de esta convocatoria pública, por correo certificado, y publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa.

Contra dicha orden foral que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas dirigir requerimiento previo a la vía contencioso-administrativa ante la diputada foral de Cultura, en el plazo de dos (2) meses a contar desde el día siguiente a la notificación de la misma, o bien interponer directamente recurso contencioso-administrativo, ante la Sala competente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos (2) meses a contar desde su notificación. Si hubiera precedido requerimiento previo conforme a lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, el plazo se computará desde el día siguiente a aquél en que se reciba la comunicación del acuerdo expreso o se entienda presuntamente rechazado.

5. Las subvenciones del presente Decreto Foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

6. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos otorgados por otras administraciones o entes públicos, municipales, autonómicos, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, dado que el importe de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad que desarrolle la entidad beneficiaria.

7. Si tras la resolución de concesión se produjera la renuncia de alguna de las solicitantes beneficiarias en el plazo de diez (10) días hábiles desde la notificación de la resolución, la cuantía de su subvención podrá redundar en los demás solicitantes.

Artículo 9.—*Pago*

1. Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de la orden foral que resuelve la presente convocatoria la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma se entenderá que ésta queda aceptada.

Inmediatamente al transcurso de 10 días hábiles tras la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de la concesión de la subvención, el Servicio de Euskera procederá a tramitar el abono de la misma ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las entidades beneficiarias.

2. Previo al pago de la subvención, se comprobará que las beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna beneficiaria incumple cualquiera de las obligaciones señaladas, ésta será requerida para que en el plazo de 10 días regularice dicha situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida.

Artículo 10.—*Devolución a iniciativa de la perceptora*

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

